

**BASKEPENSIONES 2026KO HORIZONTEA BANAKAKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO  
PLANAREN EZAUGARRI NAGUSIEN DOKUMENTUA**

**1. Definizioa.**

Nortasun juridiko propiorik gabeko gizarte aurreikuspeneko planak kontratu, elkarte, eraketa egintza edo araudi baten forma duten akordioak dira, ekarpen eta prestazio erregularren araubidea nahiz erretiro kontingentzia eta, hala badagokio, heriotza, mendekotasun, ezintasun iraunkor edo lanerako baliaezintasun, iraupen luzeko langabezia edo gaixotasun larria gertatuz gero eskubidea aitortzeko baldintzak antolatzen eta arautzen dituztenak. Gizarte aurreikuspeneko planak prestazio araudien bidez formalizatzen dira eta kapitalizazio indibidualeko sistema finantzario eta aktuarialak aplikatzen dituzte, prestazio horiek zehazteko.

**2. Gizarte aurreikuspeneko planaren izena eta modalitatea.**

Planak BASKEPENSIONES 2026KO HORIZONTEA Banakako Gizarte Aurreikuspen Plana ("Plana") du izena, eta modalitate honetakoa da:

- Banakakoa da, hau da, atxikitzea soilik eskatzen du; ez da beharrezkoa aurretiazko loturarik egotea bazkideen artean.
- Zehaztutako ekarpenekoa da, hau da, bazkideen ekarpena edo bazkideen zenbatekoa zehazteko modua alde aurretik ezartzen da, etorkizunean jasoko den prestazioarekin zuzeneko eta berehalako lotura izan behar gabe.

**3. Gizarte aurreikuspeneko planeko prestazioen araudia.**

Plana formalizatzeko prestazioen araudia bezero izan nahi dutenen eskura dago [www.baskepensiones.es](http://www.baskepensiones.es) eta [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) web orrietan, baita Kutxabanken bulego guztietan ere; bertan, paper formatuan emateko eska daiteke.

**4. Plana txertatuta dagoen borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundea: identifikazio datuak eta estatutuak.**

Plana BASKEPENSIONES BANANAKO BGAE izeneko modalitate indibidualeko borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundean ("**Erakundea**") integratuta dago. Erakundea Donostiako (Gipuzkoa) Garibai kaleko 15. zenbakian dago, eta Euskadiko BGAE Erregistroan dago erregistratuta, 201-G zenbakian eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroko 2.454. liburukian, 172. folioan eta SS-12.862 orrian.

Erakundearen funtzionamendu arauak Erakundearen estatutuetan jasota daude eta bazkide izan nahi duten pertsonak web orri hauetan eskura ditzakete: [www.baskepensiones.es](http://www.baskepensiones.es) eta [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es), baita Kutxabanken bulego guztietan ere; bertan, paper formatuan emateko eska daiteke.

## **5. Bazkide sustatzailea, Erakundearen kudeaketaz arduratzen den eta bere gordailuzaina den erakundea.**

- Bazkide sustatzailea: Kutxabank, SA, Bilboko (Bizkaia) On Diego Lopez Haroko Kale Nagusiko 30-32 zenbakietan helbidea eta A-95.653.077 zenbakiko IFZ dituen eta Bizkaiko Merkataritza Erregistroan erregistratuta dagoena 5.226. liburukian, 1. folioan, BI-58.729 orrian eta Espainiako Bankuaren banku eta bankarien Erregistroan, 2095 kode-zenbakiarekin.
- Erakunde gordailuzaina: Cecabank, S.A., Madrilgo (28.014) Alcalá kaleko 27. zk. helbidea eta A-86.436.011 IFZ dituen, Entitate Gordailuzainen Erregistro berezian eta Madrilgo Merkataritza Erregistroan erregistratuta, 30.405. liburukian, 57. folioan, M-547250 orrian.
- Erakundearen ondarearen kudeaketaz arduratzen den erakundea: Kutxabank Gestión, SGIC, SAU, Bilboko (Bizkaia), Euskadi plazako 5 zk. (Iberdrola dorrea, 27. solairua) helbidea eta A-48.267.850 IFZ dituen, Baloreen Merkaturako Batzorde Nazionalako Inbertsio Kolektiboko Sozietate Kudeatzaileen Erregistroan erregistratuta, 95. zenbakiarekin.

## **6. Erakundeko gobernu organoen osaera.**

Erakundea honako hauek osatzen dute: batzar nagusiak, borondate soziala adierazten duen organo gorenak, 20 kidekoak; eta gobernu batzordeak, administrazioaz, zuzendaritzaz eta ordezkartiaz arduratzen den organoak, 10 kidekoak.

## **7. Erakundeko kontu auditorea.**

Erakundearen urteko kontuen auditoretza egiteko ardura duen konpainia Deloitte SL da, Madrilgo Pablo Ruiz Picasso plazako 259 B zenbakian helbidea eta B-79.104.469 IFZ dituen. Madrilgo Merkataritza Erregistroan erregistratuta dago, 35.217 liburukian, 54. folioan, eta M-54.414 orrian, eta Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean S-0.692 zenbakia du.

## **8. Planaren inbertsio politika eta Erakundearen inbertsio printzipioen adierazpena.**

Planari atxikitako ondarea segurtasun-, errentagarritasun-, likidezia-, dibertsifikazio-, dispertsio-, diru kongruentziaren irizpideak betez inbertituko da, gizarte xedearen, errentagarritasunaren eta izaeraren ikuspuntutik egokiak diren epeetan, aplikatu behar zaion araudian ezarritako moduan eta zenbatekoan, eta gobernu batzordeak finkatzen dituen muga barruan.

Jarraian, Planaren inbertsio politika deskribatuko da:

Baskepensiones 2026ko Horizontea Planak dagozkion aktiboetan inbertituko du bere ondarea, ekarpenak hasierako merkaturatze aldirian (2022ko azaroaren 17tik 2023ko otsailaren 8ra bitartean) egiten dituzten eta ekarpenak jasotzeko aldia amaitu arte (2026ko abenduaren 1a) mantentzen dituzten bazkideei eskainitako bermatu gabeko errentagarritasunaren helburua betetze aldera.

Erakundearen inbertsio printzipioen adierazpen idatzia, Erakundearen aktiboak inbertitzeko politika estrategikoa jasotzen duena, bazkide izan nahi dutenen eskura dago web orri hauetan: [www.baskepensiones.es](http://www.baskepensiones.es) eta [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es), baita Kutxabanken bulego guztietan ere; bertan, paper formatuan emateko eska daiteke.

## 9. Gizarte eta ingurumen arloko gogoetei eta gogoeta etiko eta inbertsioetako gobernu korporatibokoei buruzko informazioa.

BASKEPENSIONES Bananako BGAEn arabera, gizarte, ingurumen eta gobernu korporatiboaren arloko jardunbide iraunkorrak erabiltzeak aukera ematen die erakundeei aurrera egiteko, irauteko eta epe luzera errendimenduak maximizatzeko. Horregatik, interesgarria da BGAek inbertsioak egiteko orduan jardunbide horiek kontuan hartzea, bazkideentzat lortzen diren onuren kalitatea areagotze aldera.

BGAEn inbertsio arduratsuaren irizpideak orokorrean –batez ere Nazio Batuen Erakundearen esparruan onartuta dauden nazioarteko arau, hitzarmen eta itunetan oinarritzen dira. Testuinguru horretan, BGAek egiten dituen inbertsioen xede diren erakundeek beren jarduera esparruetan honako printzipio hauek betetzea eta sustatzea lortu nahi du:

- Giza Eskubideak errespetatzea.
- Ingurumena zaintzea.
- Gobernu onaren politikak egitea.
- Jardunbide egokiak zerga arloan.

Inbertsioak egiteko, jaulkitzailearen ebaluazioa egingo du, kontuan izanik gizarte erantzukizunaren ikuspegitik eginiko inbertsioari buruzko informazio hornitzaileek jakinarazitako edota munduko erreferentziazko funts handiek adostutako kanpo uzteak, kanpo uztearen arrazoiak argitaratzen dituztenei eta esparru horretan ibilbide luzea dutenei bereziki erreparatuz, betiere BGAEn irizpideek erreferentziazko funts horien irizpideekin duten antza edo bat-etortzea kontuan hartuta.

Politika hori zuzeneko inbertsioaren diru zorroari (errenta finkoa eta errenta aldakorra) aplikatuko zaio eta, inbertsio kolektiboko erakundeen (IKE) bidezko inbertsioan, BGAek gizarteaz arduratutako inbertsioaren politikari buruzko informazioa –erakunde kudeatzailearena– inbertsioa aztertzeke prozesuan modu kualitatiboan sartuko du.

Printzipio horiek betetzen diren ebaluatzeko, BGAek aldian-aldian aztertuko du ea inbertsio zorroek lehenago aipatutako irizpideak eta printzipioak betetzen dituzten ala ez.

## 10. Planaren arrisku maila.

Planaren arrisku profila baxua da.

Datu horrek Planaren arriskua adierazten du, eta Planeko ondarearekin egin nahi diren inbertsioen xede izan daitezkeen aktibo moten lehenagoko bilakaera oinarri hartuta kalkulatu da. Dena den, arrisku maila denborarekin alda daitezkeen aldagaia denez, adierazlea Planak etorkizunean izan dezakeen arrisku profila aurretik juzgatzen ez duen neurri estatikoa da.

## 11. Planaren xede errentagarritasuna.

	<b>Baskepensiones 2026ko Horizontea</b>
Xede errentagarritasuna	% 7,84
UTB	% 2

Planak % 7,84ko (UTB: % 2) xede errentagarritasuna finkatu du ekarpenak 2022ko azaroaren 17tik 2023ko otsailaren 8ra bitartean egiten eta 2026ko abenduaren 1era arte mantentzen dituzten bazkideentzat.

Ekarpenak ezin izango dira 2022ko azaroaren 17tik 2023ko otsailaren 8ra bitarteko alditik kanpo egin, BGAEko Gobernu Batzordeak horretarako ezar ditzakeen aldietan ez bada.

Erakundeak 2026ko urriaren 1a baino lehenago gogorraziko dio bazkideari xede errentagarritasunaren epemuga laster izango dela, 2026ko azaroaren 16a baino lehenago jakinaraz dezan bere eskubide ekonomikoak BGAEn zein planetara intsuldatzea nahi duen.

Xede errentagarritasuna lortzeko aldiaren epemugan eskubide ekonomikoak bazkideak adierazitako planera pasako dira. Bazkideak ezer esaten ez badu, Baskepensiones 15 Banakako Gizarte Aurreikuspen Planera transferituko dira. Eskubide ekonomikoen eskualdaketa gehienez ere bost eguneko epean burutuko da, xede errentagarritasuna lortzeko aldia amaitzen den egunetik hasita; ondoren, planaren likidazioa egingo da.

## **12. Administrazio gastuak**

Planari dagozkion administrazio gastuak atxikitako ondarearen % 0,97 izango dira.

## **13. Eskubide ekonomikoak ezingo dira ordaindu, kobratzea ahalbidetzen duten baldintzak sortzen ez badira.**

Bazkideek ezin izango dituzte bere eskubide ekonomikoak erabili, Planeko estalduran sartutako kontingentzietako bat gertatzen ez bada edo eskubideak aurrez erabiltzeko (erreskatea) kasua ez bada.

Epemuga baino lehen egiten diren erreskate edo prestazio horiek ez dute bermatu gabeko xede errentagarritasunaren onurarik izango eta gerta liteke galera garrantzitsuak izatea.

## **14. Estalitako gertakizunak.**

Prestazioa ematea eragingo luketen Planak estalitako kontingentziak honako hauek dira:

- Erretiroa hartzea.
- Ezintasun iraunkorra edo lanerako baliaezintasuna.
- Heriotza.
- Mendekotasuna.
- Iraupen luzeko langabezia.
- Gaixotasun larria.

Planeko prestazioen araudiak prestazioa kobratzeko eskubidea ematen duten kontingentzien erregulazioari buruzko informazio xehatua jasotzen du.

## **15. Ekarpenen eta prestazioen arteko bateraezintasunak.**

Ekarpinak egitea eta aldi berean prestazioak jasotzea bateraezina izan daitezke edo mugapenak izan ditzakete. Horrelakoetan, aplikatu beharreko araudian eta, hala badagokio, Erakundeko estatutuetan eta Planeko prestazioen araudian xedatutakoa bete beharko da.

## **16. Eskubideak aurrez erabiltzea (erreskatea).**

Bazkideek aldez aurretik eskuratu ahal izango dute aurreikuspen planetara egindako ekarpenei dagozkien eskubide ekonomikoen zenbateko osoa edo partziala, baldin eta plan horiek 10 urtetik gorako antzintasuna badute.

## **17. Eskubide ekonomikoak mobilizatzea.**

Oro har, bazkide arruntek eta onuradunek Planeko eskubide ekonomikoak gizarte aurreikuspeneko beste plan batera mugitu ahal izango dituzte, osorik edo partzialki, inolako gasturik gabe eta eskubideak murriztu gabe, aplikatu beharreko araudian, Erakundearen estatutuetan eta Planeko prestazioen araudian xedatutakoaren arabera.

Onuradunen kasuan, kontuan izan behar da haien eskubideak gizarte berrikuspeneko beste plan batzuetara mugitu daitezkeela, onuradunak hala eskatzen badu, betiere prestazioen berme-eta aseguratze-baldintzek horretarako aukera ematen badute.

## **18. Prestazioak: eskabideak eta kobratzeko moduak.**

Kontingentzia erabakigarria gertatu ondoren, prestazioa jaso nahi duen bazkide arruntak edo onuradunak Erakundeari emango dio horren berri, eta beharrezko informazioa eta prestazioa jasotzeko eskubidea egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko du.

Erakundeak dokumentazioa aztertuko du, eta beharrezkotzat jotzen dituen datu osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

Dagokion prestazioa, oro har, diruzkoa izango da eta kapital gisakoa, errenta gisakoa edo mistoa izan daiteke (kapitala eta errenta), indarrean dagoen araudian, Erakundearen estatutuetan eta Planeko prestazioen araudian aurreikusitako aukeren arabera.

Erakundeak araudian aurreikusitako gehieneko epean ordainduko ditu prestazioak, egiaztapen guztiak erakundean aurkeztu direnetik zenbatzen hasita eta, kontingentzia bazkide arrunt baten heriotza denean, pertsona onuraduna nor den erabakitzen denetik zenbatzen hasita.

Prestazioak pertsonalak eta besterenezinak izango dira eta sortu zirenean zuten xedeari lotuta egongo dira estatutuen edo araudien arabera, indarrean dagoen araudiaren edukia betez.

Eskubide ekonomikoak, dagokion prestazioa kobratzeko eskubidea ematen duen kontingentzia gertatu arte, ez dira enbargatuko eta ezin izango da horien gainean kenkaririk, atxikipenik, lagapenik edo konpentsaziorik egin, ezta inolako kontraturen berme gisa eratu ere.

Kontingentzia gertatu ondoren, enbargoa, traba judiziala edo administratiboa egonez gero, epaitegi edo administrazio eskudunak ezarritakoa beteko da.

Heriotza kasuetan, enbargoa, traba judiziala edo administratiboa egonez gero, epaitegi edo administrazio eskudunak ezarritakoa beteko da, hala dagokionean, onuradunek izan ahal dituzten eskubide ekonomikoak jakinarazi aurretik.

## **19. Etorkizuneko pentsio eskubideen zenbatespenari buruzko informazioa.**

Bazkide izan daitekeena bazkide arrunt gisa atxikitzen bazaio Planari, eskubidea izango du egindako ekarpenen arabera etorkizunean sor daitezkeen pentsio eskubideen zenbatespenari buruzko informaziorako, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundearen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak xedatutakoari jarraikiz.

## **20. Erreklamazio eskabideak.**

Bazkide arruntak, onuradunak edo eskubidedunek beren interesekin eta legez aitortutako eskubideekin zerikusia duten keak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, idatziz, gobernu batzordearen aurrean edo bazkidearen defendatzailearen aurrean, haiek aukeratuta, erakundearen estatutuetan xedatutakoaren arabera.

Bazkidearen defendatzailearen edo, hala badagokio, gobernu batzordearen erabakia ez da oztopo izango babes judizial osoa jasotzeko, ezta administrazioaren kontrol eta gainbegiratze eginkizunak betetzeko ere.

Erakundeko bazkidearen defendatzailea Analistas Financieros Internacionales, SA da, Madrilgo Marqués de Villamejor kalean helbidea eta A-78.603.206 zenbakiko IFZ dituen. Madrilgo Merkataritza Erregistroan dago erregistratuta, 8.329. liburukian, 173. folioan eta 79.387 zenbakiko orrian.

## **21. Aplikatu beharreko araudia eta zerga araubidea.**

### **21.1 Aplikatu beharreko araudia.**

Erakundeak eta Planak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legean, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legeko Araudia onartzen duen urriaren 27ko 203/2015 Dekretuan, aplikatu beharreko gainerako arau xedapenetan eta Planeko prestazioen araudian xedatutakoa bete behar dute.

### **21.2 Zerga araubidea.**

Planari aplikatu behar zaion zerga araubidea bazkidearen edo onuradunaren egoitza fiskalean aplikatu beharreko eta indarreko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari (PFEZ) buruzko araudiaren arabera izango da.

Oro har, egiten diren ekarpenek eskubidea emango dute ekarpen egilearen PFEZren zerga oinarri orokorra murrizteko, muga kuantitatibo eta kualitatibo jakin batzuei lotuta, ekarpen egilearen egoitza fiskalaren arabera aplikatu behar den araudiaren arabera.

Bestalde, prestazioek, heriotzakoak barne, norberaren lan etekinek bezala ordaintzen dituzte zergak. Prestazioaren hartzaileari aplikatu beharreko araudiaren arabera, prestazioa kapital gisa ematen bada, etekina kalkulatzeko orduan murrizketaren bat egiteko aukera egon daiteke.

## **22. Bazkide izan nahi dutenek funtsezko datuak biltzen dituen dokumentu hau webgunean irakur dezakete.**

Planaren araudia eta inbertsio printzipioen adierazpenaz gain, funtsezko datu eguneratuak jasotzen dituen dokumentu hau web orrialde hauetan argitaratuta dago: [www.baskepensiones.es](http://www.baskepensiones.es) eta [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es).